

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

2023ko ekitaldian berariazko ikastaro eta lantegi soziokulturalak garatzeko dirulaguntzetarako deialdia eta oinarriak

Aguraingo Udalak, Tokiko Gobernu Batzarrak 2023ko urtarrilaren 18an egindako bileran, erabaki zuen Aguraingo elkarte soziokulturalentzako dirulaguntzen deialdia onestea, 2023ko ekitaldian Aguraingo udalerraren eremu geografikoan ikastaro eta lantegi soziokulturalak egiteko.

2023KO DEIALDIA

2023ko ekitaldirako helburuen artean, Aguraingo Udalak udalerrian dauden eta ikastaro eta lantegi soziokulturalak antolatzea eta gauzatzea sustatzen duten elkarte soziokulturei laguntza ekonomikoa ematea aurreikusi du.

Dirulaguntza horien bidez, udalerraren garapen soziokulturala sustatu nahi da, ekimenak gauzatu ahal izateko, Aguraingo Udalaren aurrekontu orokorrean horretarako egindako aurrekontu esleipenek ezarritako mugekin.

Oinarriak

Lehenengoa. Deialdiaren helburua

2023ko ekitaldian ikastaro eta lantegi soziokulturalak egiten laguntzea, Aguraingo udalerrian.

Bigarrena. Onuradunak

Aguraingo elkarte soziokulturalak, Euskadiko elkarten ekainaren 22ko 7/2007 Legeak xedatutakoaren arabera behar bezala erregistratuta daudenak. Deialdi honetatik kanpo geratuko dira Aguraingo ikastetxeetako ikasleen gurasoen elkarteak.

Hirugarrena. Diruz lagundu daitezkeen programak

Ikastaro eta lantegi soziokulturalak, euskaraz edo gaztelaniaz, helburu dutenak adierazpen artistikoetan eta elkartearen eskumenekoak diren eta haren helburuen artean dauden diziplinetan prestakuntza hastea edo hobetzea.

Laugarrena. Dirulaguntzen zenbatekoa

Aurkeztutako programen kostuaren eta eskatzaileak gastu horiek ordaintzeko dituen baliabideen arabera izango dira dirulaguntzak. Nolanahi ere, Aguraingo Udalaren ekarpena ezingo da izan programa burutu osteko kostu osoaren ehuneko 75 baino gehiagokoa.

Salbuespen gisa, Aguraingo Udalak aurreko atalean adierazitako muga gainditu ahal izango du eta bere ekarpena kostu osoaren ehuneko 90ekoa izan ahalko da gehienez, baina arrazoitu egin beharko du salbuespen hori dirulaguntza emateko ebazpenean. Deialdi honetan ezarritako aurrekontu mugen arabera izango da dirulaguntzen guztizkoa. Kasu honetan, 9.000,00 eurokoa izango da, eta 334.481.011 aurrekontu partidaren kontura finantzatuko da. Eskatutako kopuru osoak zenbateko hori gainditzen badu, dagokion hainbanaketa egingo da.

Bosgarrena. Eskaerak, aurkeztu beharreko agiriak eta aurkezpena

Dirulaguntzak eskatzeko, Aguraingo Udalaren bulegoetan lortu ahal izango den inprimakia bete beharko da.

Agiri hauek ere erantsi behar dira:

a) Dirulaguntza eskatzen duen elkarteko batzarraren adostasunaren ziurtagiria, eskaera eta gastuaren finantzaketa partziala baimentzen dituen.

b) Ikastaro eta/edo lantegien proiektua. Honako hauek adierazi beharko dira, azalpenekin eta berezita:

– Ikastaroaren edo lantegiaren izena.

– Helburuak.

– Saioen egutegia eta iraupena.

– Non egingo diren.

– Programaren kostua, kostu guztiak berezita, eta matrikularen kostua, parte hartzaileko. Horrez gainera, beste instituzio edo erakunde batzuek helburu bererako emandako dirulaguntzak eta horien zenbatekoa adierazi beharko dira. Matrikulengatiko diru sarrerak sartzen edo zehazten ez badira, kostu osoaren herena hartuko da matrikulengatiko diru sarreratzat.

– Deialdi honetatik kanpo kudeatu beharreko baliabideak: dirulaguntzak, elkartearen beraren baliabideak eta abar.

– Ikastaro eta/edo lantegiak egiteko azpiegiturak.

– Izango dituen baliabide materialak eta langileak.

c) Zerbitzu teknikoek edo organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko dute eskatzaileek zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela, bai eta haien nortasuna ere (nortasun agiri nazionala/identifikazio fiskaleko zenbakia). Hala ere, erakunde eskatzaileak berriaz egin diezaioke uko egiaztapen horri, eta, hala egiten badu, adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko du. Gainera, bat etorritz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikulua 2. paragrafoan xedatutakoarekin, dirulaguntzaren eskaera aurkezteak berekin dakar eskatzaileak baimena ematea Aguraingo Udalarari zuzenean eskura dezan beste edozein administrazio publikok egindako dokumentazio guztia.

d) Erakunde eskatzaileak administrazio honetan edo beste edozein administrazio publiko-tan aurkeztu badu eskatutako dokumentazioa, eta aldaketarik ez dela egin berriaz adierazten badu, ez du aurkeztu beharko dokumentazio hori, bat etorritz urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikulua 3. paragrafoan xedatutakoarekin. Hala ere, dokumentu horiek noiz eta zer administrazio organotan aurkeztu dituen adierazi beharko du. Eskabidea aurkezteak berekin dakar baimena ematea organo kudeatzaileari dokumentazio hori eskura dezan, baina horrek ez du esan nahi baimena berriaz ukatu ezin denik. Kasu horretan, adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko da.

Eskaerak Aguraingo Udalaren erregistroan aurkeztu behar dira, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezarritako moduan, hurrengo klausulan aurreikusitako epeen barruan.

Eskaerak ez badituzte betetzen adierazitako baldintza horiek, Aguraingo Udalak interesdunei hamar egun emango dizkie akatsak zuzendu edo aurkeztu ez dituzten nahitaezko agiriak aurkezteko. Hala egin ezean, eskaera artxibatu egingo da, eta interesdunak eskaerari uko egin diola joko da.

Seigarrena. Epea

Eskaerak eta bosgarren oinarrian aipatutako agiriak aurkezteko epea hamabost egun baliodunekoa izango da, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Zazpigarrena. Dirulaguntzak emateko irizpideak

Hauek izango dira dirulaguntza zehazteko eta haren zenbatekoa finkatzeko balioespen irizpideak, laugarren oinarrian ezarritako mugak alde batera utzi gabe:

– Aurkeztutako ekimenean euskara erabiltzea (3 puntu).

- Programek parte hartzea sustatzea, gazteena eta emakumeena bereziki, elkarrekin parte har dezaten (3 puntu).
- Ekimenak kultura zabaltzen, berreskuratzen eta sustatzen laguntzea (2 puntu).
- Programaren kostuaren eta erakunde eskatzaileak bere gain hartzen duen zatiaren arteko erlazioa (1 puntu).
- Jardueraren hartzaile kopurua (1 puntu).

Zortzigarrena. Dirulaguntzaren muga

Emandako dirulaguntzaren zenbatekoak ezingo du onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua gaintitu, dirulaguntza hori bakarrik hartuta edo beste erakunde batzuen dirulaguntzekin batera.

Onartutako dirulaguntza berriro aztertu ahal izango da, gastua finantzatzeko beste erakunde batzuek egindako ekarpen osagarriak edo beste diru sarrera batzuk ere erabili direla jakin ondoren. Horrelakoetan, gastuen eta diru sarreraren arteko likidazioa egin, eta hortik ateratzen den emaitza defizitarioa izango da dirulaguntzaren behin betiko zenbatekoa.

Bederatzigarrena. Eskaerak aztertzea eta ebatzea

Eskaerak aurkezteko epea amaitu eta gero aztertuko dira dirulaguntzak eta, hala badagokio, onartuko edo ukatuko.

Aguraingo Udalak, egokitzat jotzen dituen kasuetan, aurkeztutako agirien inguruko datuak eta azalpenak eskatu ahal izango ditu; espedientea atzeratu, eta are artxibatu egin ahal izango da, datu eta azalpen horiek ez badira bideratzen Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean ezartzen diren epeetan, eta deialdiaren bosgarren oinarriaren azken paragrafoa aplikatuko zaio hala dagokion eskaerari.

Eskaera bakoitzari dagozkion izapide guztiak egin ondoren, instrukzio organoak txostena egingo du. Kultura arloko teknikariak eta zinegotziak osatuko dute organo hori, eta txostena Aguraingo Udaleko kultura batzordean aurkeztuko da. Batzorde horrek, ebatzen proposamena egin, eta tokiko gobernu batzarrari helaraziko dio, hark ebatzpena eman dezan. Ebatzen horrek administrazio bidea agortuko du.

Tokiko gobernu batzarrak dirulaguntza ematea ebatzen badu, honako hauek adierazi beharko ditu ebatzpenean: dirulaguntzaren zenbatekoa eta dagokion programa edo jarduera. Ez da beharrezkoa izango dirurik ematea aurrerapen modura edo konturako sarrera modura.

Bi hilabeteko epean hartu beharko dira erabakiak, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunetik aurrera kontatzen hasita. Epe hori igarotakoan erabakirik hartu ez bada, dirulaguntza jasotzeko eskaera ezetsi dela ulertuko da.

Hamargarrena. Elkarte onuradunek aurkeztu beharreko agiriak, epea eta ez betetzearen ondorioak

Dirulaguntza jasotzen duten elkarrekin honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte udalderetako erregistroan:

- Izandako diru sarrera guztiak erakusten dituen balantzea.
- Diruz lagundutako ekimenetatik eratorritako gastuak justifikatzen dituzten fakturak, zeinek legezko betekizun hauek bete beharko baitituzte:
- Jatorrizkoak edo udalderetako idazkaritzak egiaztatutako kopiak.
- Jardueraren emakida aldiko data izan behar dute.
- Hartzailearen nortasun agiri nazionalaren zenbakia edo lizentzia fiskalaren zenbakia izan behar dute.

- Hornitzailearen zigilua edo sinadura izan behar dute.
 - Aurkeztutako aurrekontuarekin bat etorri behar dute.
 - BEZetik salbuetsita badaude, hori egiaztatzen duten agiriak gehitu behar dira.
 - Diruz lagundutako programaren edo ekimenaren memoria, bete diren helburuak zehaztuta, parte hartu duten pertsonen zerrendarekin eta, halakorik bada, jarduera iragartzen duen kartelarekin. Kartel horretan berariaz adierazi behar da Aguraingo Udalaren lankidetzatza, eta haren logotipo korporatiboa agertu behar da.
 - Eskatzaileak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela frogatzen duten egiaztagiria.
 - Helburu bererako jasotako dirulaguntzen inguruko zinpeko aitortpena.
- Aipatutako agiri horiek guztiak 2023ko abenduaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dira. Epe hori igarotakoan agiri horiek aurkeztu ez badira, ordainketa kredituak ezeztatuko dira eta, egoki bada, konturako sarrera modura jasotako diru kopurua bueltatzeko espedienteak hasiko dira.

Hamaikagarrena. Ebazpena jakinaraztea

Eskatzaileei idatzizko jakinarazpen baten bidez emango zaie dirulaguntza emateko edo ukatzeko ebazpenaren berri. Eskatzaileak kontrakorik ez badio, ebazpenean adierazitakoa onartu duela ulertuko da.

Hamabigarrena. Dirulaguntzak aldatzea

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako inguruabarretako bat aldatzen bada, dirulaguntza emateko erabakia aldatu ahal izango da eta dirulaguntza osoa edo zati bat itzuli beharko da, eta gauza bera gertatuko da beste erakunde publiko edo pribatu batek xede bererako laguntza edo dirulaguntza bat emanez gero ere.

Hamahirugarrena. Bateriaezintasuna

Ekimen eta programa hauetarako emandako dirulaguntzak bateragarriak izango dira jaso ditzaketen bestelako laguntza ekonomiko edo dirulaguntzekin. Dirulaguntza hori eskatu izanaren berri eman beharko zaio Aguraingo Udalari, eta zein erakunderi eskatu zaion eta dirulaguntza zenbatekoa den adierazi.

Hamalagarrena. Aguraingo Udalaren babesa

Deialdi honen bidez dirulaguntza jasotzen duten elkarteak behartuta daude berariaz eta modu argian adieraztera Aguraingo Udalaren babesa izan dutela, diruz lagundutako programa edo ekimenari buruz argitaratzen dituzten egitarau, iragarki kartel eta argazkietan eta gainerako materialetan, argazki, idatzi nahiz soinuak direla.

Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dituzte jarduerak iragartzeko egitarau eta karteletan.

Hamabosgarrena. Dirulaguntza galtzea

Elkarte onuradunek dirulaguntza galdu ahalko dute, deialdi honetan adierazitako baldintzak betetzen ez badituzte.

Hamaseigarrena. Dirulaguntza itzultzea

Jasotako zenbatekoak itzuli beharko dituzte, eta dirulaguntza ordaindu zen unetik aurrera sortutako berandutze interesak eskatuko zaizkie.

Itzuli beharreko diru zenbatekoak zuzenbide publikoko diru sarrera gisa hartuko dira, eta, itzulketa ez bada egiten xede horretarako ezartzen den epearen barruan, premiamendu bidea erabili ahal izango da.

Dirua itzultzeko, Aguraingo Udalaren aldeko txeke izenduna egin ahal izango da edo esku-dirutan sartu ahal izango da udal diruzaintzan.

Hamazazpigarrena. Garapena

Aguraingo Udaleko tokiko gobernu batzarraren erabakiz, deialdi hau garatzeko egokitzat jotzen diren ebazpenak hartuko dira. Datuak egiazkoak direla eta oinarri hauetan araututakoa betetzen dela egiaztatu ahal izango da. Horretarako, elkarte onuradunek konpromisoa hartzen dute Aguraingo Udalak programa eta/edo ekimenei buruz eskatzen dizkien datu eta agiri guztiak emateko.

Hemezortzigarrena. Publizitatea

Deialdi hau Aguraingo elkarteen artean zabalduko da eta ahalik eta gehien zabalduko da komunikabideen bitartez.

Hemeretzigarrena. Interpretazioa

Oinarri hauek interpretatzean zalantzarik sortuz gero, Aguraingo Udalaren Kultura Zerbitzuak ebatziko du.

Hogeigarrena. Errekurtsoak

Honako deialdi honen aurka zein honen ondorioz sortutako administrazio egintza oren aurka egin daiteke, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak ezarritako kasuetan eta eran.

Hogeita batgarrena. Erantzukizuna bere gain hartzea

Erakunde eskatzaileak bere gain hartuko du diruz lagundutako programa edo ekimena gauzatzetik erator daitekeen erantzukizuna, eta baita indarrean dagoen legerian programa edo ekimen hori gauzatzeko eskatzen diren baimenak eskatzeko ardura ere.

Hogeita bigarrena. Azken klausula

Oinarri hauetan adierazita ez dagoena honako hauen arabera arautuko da: Toki Araubidearen Arautegia; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; 38/2003 Legea; dirulaguntzei buruzko araudi orokorra eta aplikatu daitekeen gainerako araudia.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Agurain, 2023ko urtarrilaren 25a

Alkatea

ERNESTO SAINZ LANCHARES